Una segunda lección es que cada conflicto se juega en términos muy concretos y con elementos de coyuntura que son específicos en cada momento. De nuevo, algo evidente, pero también algo que debemos recordar, especialmente ahora que se extienden algunos discursos en torno al papel de la ciencia como fuerza que debe iluminar la transición ecológica – casi como si de una religión se tratara – o lecturas de la crisis en términos de colapso que cifran todo a una especie de apocalipsis final. Muy al contrario, cada crisis se materializa en conflictos en los que es imprescindible una estrategia correcta y una serie de movimientos tácticos para manejar la coyuntura y ser capaces de articular la fuerza de los sectores trabajadores. Y de todo esto, el elemento imprescindible, sin el cual no se puede avanzar, es justamente ese: la fuerza de las trabajadoras porque, como en todo conflicto, la relación de fuerzas es el factor definitivo.

Por último, y a modo de conclusión, tenemos que apuntar al carácter de las luchas ecosociales. Frente a la idea de que se trata de formas de lucha completamente nuevas y ajenas al viejo movimiento obrero, lo que nos enseña la lucha de Nissan Zona Franca es que el desarrollo del conflicto, aunque tenga un contenido ecológico fuerte, se juega en términos de poder, y por lo tanto de clase. No habrá una fuerza que ilumine nuestro camino hacia la

sostenibilidad, guiándonos hacia una sociedad en paz con la naturaleza; la famosa provocación de Manuel Sacristán sobre la necesidad de una conversión religiosa³ no era más que eso: una provocación. La realidad es mucho más mundana y nos remite a una reformulación de la lucha de clases en la que el futuro ecosocial sea una de las líneas centrales de los sectores populares. Es evidente que aquí los sindicatos tienen que tener un papel central, superando así la dinámica ecologista de construcción de movimientos sectoriales. Y es que, aunque pueda sonar extraño, la lucha por un mundo habitable con un encaje en los ecosistemas se va a desarrollar como una forma de lucha dentro del escenario capitalista, y entonces lo determinante no es tanto tener razón, sino tener fuerza política y social. Tener razón, acertar en las decisiones que tomamos como sociedad, es un elemento imprescindible, pero sin la fuerza de la clase, no nos librará de la catástrofe ecológica y social. Diego Rejón apunta la necesidad de recuperar fuerza para evitar que la reducción de la mano de obra necesaria que se va a sufrir por las limitaciones ecológicas sea asumida sin despidos. La solución es no reducir el número de trabajadoras, sino el de horas y años trabajados, a través de la reducción de jornada y el anticipo de la edad de jubilación. En el fondo, esto es lo que se ha reclamado desde el movimiento ecosocialista desde sus inicios: reducción de jornada sin reducción de salario, y más aún, reparto del trabajo socialmente necesario dentro de un esquema de acceso garantizado a los bienes básicos. Esto abre muchas otras discusiones: sobre la renta básica universal, sobre el trabajo garantizado, etc. Pero en el camino, lo que la lucha de Nissan nos recuerda es que nada de esto podrá realizarse sin un polo obrero y popular fuerte que sea capaz de dar las batallas sindicales y también las políticas. ■

³ Sacristán, Manuel. Seis conferencias: sobre la tradición marxista y los nuevos problemas. Barcelona: El viejo topo, 2014. P. 139.

Langileok gidaturiko trantsizio baterantz

Azken hilabeteetako gertakariekin trantsizio energetiko eta ekologikoaren eztabaidea lehen lerroan jarri dute. Ukrainako gerrak burujabetza energetikoaren falta ez ezik energia iturri fosilekiko Europak eta, ondorioz, Euskal Herriak duen menpekotasuna azalarazi du eta zeharka energia iturri fosilen agortzea, Europa eta planeta osoa ispiluaren aurrean biluztuz. Azken urteetako udarik beroena ere pasa berri dugu, etorkizunean biziko dugun freskoena omen. Kontzientziak astintzeko hilabete trinkoak izan dira, aldaketen premia ageriago geratu den hilabeteak.

Inork gutxik jarriko du zalantzan aldaketen beharra. Gakoa beti bezala aldaketen norabidean egongo da, eta horretan sindikalismoak badu zer esana eta zer egina.

ZERK EKARRI GAITU HONAINO?

Erantzuna argia da, kapitalismoak. Kapitalismoa sistema bidegabeara da eta ez da jasangarria ez sozialki ezta ekologikoki ere: pobrezia areagotu du, prekarietatea hedatu, jendartean arrakalak eta zapalkuntzak sortu... dena aberastasuna esku gutxi batzuetan metatu ahal izateko. Gainera, jendartearren ongizatea mundu finitu bateko hazkunde etengabeen oinarritzeak energia eta material fosilen agortzea ekarri du batetik, krisi ekologikoa bestetik. Krisi

ekosozial betea da egun bizi duguna beraz.

DENOK ARDURA ETA ERANTZUKIZUN BERA DUGU?

Badago joera bat ardura norbanakoon gain jartzeko: "geure aukeren gaintek bizi gara, kontsumo eredua aldatu behar dugu..." eta hori, fokoa desbideratzea da, kapital handien edota instituzioen hainbat ordezkarik bilatzen eta bultzatzen duten diskurtsoa elikatzea.



OIHANA LOPETEGI » LAB sindikatuko Ekintza Sindikaleko arduraduna

Ardura desberdinak daude:

- Batetik, herrialdeen artean. Herrialde bakoitzaren aztarna ekologikoa desberdina delako, baita kutsatzen edota produzitzen duena eta historikoki izan duen bilakaera ere, agerikoa baita Mendebaldea deritzogun hori Hego globalaren pobretzearen eta ustiaketaren bizkar hazi dela. Gainera, klima larrialdiaren ondorio nagusienak ardura gutxien duten herrialdeek jasaten dituzte. Beraz, herrialde guztiei ezin diegu langa bera ezarri, eta, hemen, Euskal Herrian, ardura handia dugula gogora ekarri beharra daukagu. Munduko biztanleria guztiak Euskal Herritarrok bezala kontsumituko bagenu 3 planeta beharko genituzke bizirauteko.

- Kapitalak eta kapitalaren eta patrinalaren interesen defentsan gobernatu duten instituzioetako ordezkarriak, eta langileok bestetik. Politika konkretuek ekarri gaituzte hona, kapital handien mesederako ezarri dituzte legeak, eta, ondorioz, langileok izan gara kaltetu nagusiak, bai ondorio sozialei dagokienean eta baita ingurumeneikoi dagokienean ere.

Edonola ere, norbanakook badugu geure erantzukizuna ere, eta horri ezin diogu uko egin: gure bizi ohiturak eta kontsumo ereduak zalantzan jarri eta eraldatu ahal dugu, geure bizi maila zertan oinarritzen dugun aztertu dezakegu, eta, batez ere, eraldaketaren alde borrokatzeko erantzukizuna daukagu.

NONDIK HASI? ERALDAKETA SAKONAREN BEHARRA

Munduak egin beharreko eraldaketa ez da egun batetik bestera egingo. Herriz herri egin beharreko prozesu bat izango da, urratsez urrats, langileon beharrak aintzat

hartzen. Beraz, eraldaketa Euskal Herritik bertatik hasteko garaia iritsi zaigu, eta horretarako, burujabetza lortzeko bidea urratzen hastea ezin-

besteko izango da, energia burujabetza erdiesteko burujabetza politikoaren beharra izango dugulako.

Dagoeneko denok ari gara trantsizioaz hitz egiten, eskuin zein ezkerreko alderdiak, enpresaburuak eta langileak Trantsizio hori benetakoia izango den ala ez, nolakoa eta noren mesedera egingo den izango da datozen urtetako erronka nagusia. Guk argi dugu trantsizio hori langileon beharren araberakoa izan beharko dela, jendarte honen gehiengoaren interesen araberakoa. Modu planifikatuak egin behar den trantsizioa da proposatzen duguna, sektore publiko indartsu baten esku-hartzea izango duena, eta horretarako sektore estrategiko publifikazioaz hitz egin beharko dugu.

ZEINTZUK DIRA LANGILEONTZAT BEHARREZKOAK DIREN LANAK EDOTA ENPLEGUAK?

Kapitalismoak bere logikaren araberako enplegua sortu du, hazkunde etengabearen ameskerian oinarritu den logikaren araberakoa. Lurra muga biofisikoak dituela aintzat haritu gabe jardun du makinaria guztiak martxan, urte luzez ekologismotik zein bestelako mugimendu sozial-tatik aurreikusten eta ohartarazten zizkiguten ondorio larriak hurrengo belaunaldiei uzteko erreparorik gabe.

“ TRANTSIZIOA BENETAKOA IZANGO DEN ALA EZ, NOLAKOA ETA NOREN MESEDERA EGINGO DEN IZANGO DA DATOZEN URTEETAKO ERRONKA NAGUSIA ”

Horrela, langileria armak ekoizten, balio sozial errealek ez duten lanetan – finantzak, publizitatea, masa turismoa... – edota ekologikoki jasan-gariak ez diren jardueretan aritu da lanean urte luzez, langileontzat beharrezkoak ez diren enpleguetan. Gainera, bizitzarentzat ezinbestekoak diren beste hainbat lan eta enplegu baino hobe to ordaindu dituzte enplegu horiek, garbitzaileen, etxeko langileen edota zaintzaileen lana baino aitortza

sozial eta ekonomiko handiagoa izanik. Finean, empleguaren eta lanaren balioa irizpide merkantilisten arabera eza- da, bitzarako beharrezkoak ditugun lanak gutxietsiz kasu gehienetan.

Baina, zeintzuk dira bada bizitzaren- tzat beharrezkoak diren lanak? Zerrenda oso luzea gera daiteke, baina aipatuko ditut batzuk: eredu publiko komunitario baten arabera antolatutako zaintza lanetan sortu daitezkeenak, berrerabilera sustatzeko sektoreak, ingurumenaren mantenua (basogintza esaterako) eta zaintza (eremu degradatuak), lehen sektorea, etxebizitzen birgaitza.

ENPLEGUA VS TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA EKOLOGIKOA?

Dikotomia hori ez da erreala. Benetako eta bidezkoa izango den trantsizioa bultzatzen badugu jarduera batzuk jaistearrekin batera beste batzuk sortzeaz aritu beharko dugu, emplegu denon artean banatzeaz. LABek eskaintzen duen borroka langile bat bera ere babesik gabe utziko ez duen trantsizio baten aldekoa da eta horretarako irtenbide kolektiboak sustatu beharko ditugu: empleguko jardunaldiaren murrizketa, erretiro aurreratua, etengabeko formakuntza, sektoren eraldaketarako bideorri planifikatura, funts publiko eta solidarioak emplegu galdu dezaketen horiei bizi baldintzak bermatu ahal iza-teko beste emplegu bat izan bitartean etab.

LAB tinko mantenduko da empleguaren defentsan, langileon bizi baldintzak duinak izan daitezen borrokatuko gara, trantsizioan ematen diren urrats bakoitzean langileon es-kubideak defendatzen arituko gara.

TRANTSIZIO ENERGETIKO/ EKOLOGIKOA LANGILEON MESEDETAN

Dagoeneko inork ez du zalantzan jartzen trantsizio energetiko eta ekologiko baten ezinbestekotasuna. Energia iturriak agortuko zaizkigu-lako, geure dependentzia energé-tikoa gero eta agerikoagoa delako edota larrialdi klimatikoa dagoeneko bitizen ari garen fenomenoa delako. Goiz edo beranduago egin beharreko bidea dugu trantsizio hori, eta bi aukera besterik ez dauzkagu: eliteen mesedera eraikitako trantsizioa edo modu planifikatu batean, kontrol pu-bliko eta sozialarekin eta langileon mesedetan egingo dena.

Guk trantsizio horren parte izan nahi dugu, erabakien parte izan, langileon beharrizanak aintzat hartzeko ezinbestekoa izango delako, langileok gidaturiko trantsizio bat nahi dugulako. Burujabetza energetikorantz egingo dugun bidean burujabetza politikoa nahitaezko baldintza izango dela uste dut, baina gaur eguneko eskumene-tatik abiatuz, urratsez urrats bideari ekin behar diogu. Logika horretatik planteatzen ditugu Bidezko Trantsizio baterako Batzordeak, maila ezberdinietan (udalerrietan, eskual-deetan, enpresetan eta sektoreetan) egin beharreko plangintza estrate-gikoak langileen ordezkaritzarekin ere erabaki ahal izateko. Batzorde horiei ezarriko genizkiekeen egi-tekoen artean leudeke eraldaketa-rengan planifikazioa, sektore estra-tegikoen jabetza edota desjabetze prozesuak bideratzeko eskume-nak garatzea.

**“GUK TRANTSIZIO
HORREN PARTE
IZAN NAHI DUGU,
ERABAKIEN
PARTE IZAN,
LANGILEOK
GIDATURIKO
TRANTSIZIO BAT
NAHI
DUGULAKO”**

Eraldaketa, trantsizioa, egin egingo da. Eta LABek bere esku dagoen guz-tia egingo du bide hori langileon me-sedetan egiteko eta prozesuan langile guztiun eskubideak bermatuak izan daitezen. ■

Komunitateari: gure egitekoez bi hitz

Lagunartean, lantokian, edo eros-ketak egitean berbagai direnak abiadura handian aldatu dira azken bi-hiru urteetan. Pandemiaren eraginez, izandako biziñenez edo beronen ondorio sozialez ari ginen duela ez horrenbeste, baina gerra hotsak etxeko atarian entzuteak, oinarrizko produktu eta behar materialen garestitzeak, edo nozitzen ari garen krisi ekologiko eta energetikoak eraldatu egin dituzte gure arteko elkarriñek. Askorentzako ez dira berriak, prekarizazio eta pobretze prozesuen itsasoan igeri egiten aspaldi gabitzalako; beste askok, ordea, orain-dik dugun txalupa mantentzeko gai izango garela sinetsita gaude, orain ura xukatzen bagabiltza ere.

Egunero lan politiko eta sindikal militantean jarduten garenok bilera, analisi, proposamen eta ekintzaz betetzen dugu agenda, bizitzen ari garen krisialdi garai honen aterabideak langile jendearen eta planetaren zaintza eta interesak lehenetsi ditzan. Ziurgabetasunaren aroa omen da gurea, baina aldi berean konstatazio batzuk izan baditugu. Aurpegi askotariko krisi hau, sistemikoa da; alegia jendarte antolaketa zehatz honek eragindakoa da, eta, beraz, ezinbestean, norabide konkretuan har tutako erabaki politikoek elikatzen dute.

Erasoaldi honen aurrean, inmobilismoan edota orain arteko berdina egiteko joeran gotortu gaitezke, ekitearen inertziak asetuko gaituelakoan, edota botereguneetatik modu sistematikoan saltzen diguten alternatiba ezaren diskuertsoa gure eginda. Ez dugu amua irrentsiko.

Bideorria beharrezkoa dugu; iparra, norabidea emango diguna. Sindikatuaren ariketa hori egina dugu modu kolektiboan osatutako gure Programa Sozioekonomikoa berritzeko prosesuan. Baina ez da aski. Proposamenak izanik ere, horien bueltan euskal langileriaren gehiengo bat biltzeak izan behar du erronka: jendarte eredu berri baterako desira eta ibiltzeko nahia geroz eta langile gehiagok partekatzea.

Ez gara gu egia osoaren jabe, eskerrik. Horregatik gure proposamenak eztabaidan eta elkarrekintzan jarri nahi ditugu beste agente politiko, sozial eta sindikalekin. Horixe dugun erronketako bat, aliantzen alde denok hitz egin baina benetan horiek eraikitzeko gaitasun eta aukerak soberan ez dauden une honetan. Ahalegin horretan tematzeak izugarritzko garrantzia izango du hurrengo urteetan.

Irekitzen ari den ziklo berriari begira mugimendu sindikal eta sozialak gure buruak berrasmatu eta egokitzeko prozesuetan gabiltza. Apurka bada ere, berrindartzen ari da gure herriko universitatea organizatiboa; lehendik zetozenak berrindartuz, eta abagune honetan sortzen ari direnen giharra handituz. Denen arteko sinergiak eraiki eta agenda sozial partekatua eraikitzeak izan beharko luke epe labur ertaineko gelotikia; aldaketa erradikalak eragin eta gure kontinentean barriatzen ari den indar erreakzionarioari galga jarri eta gainditzeko asmoa badugu bederen.

Modu berean, ezin gara soilik borroka ideologikoaren batailetara mu-

gatu, areago orain eta hemen, geroz eta sektore sozial zabalagoek urgentzia materialak bizi ditugulako. Pobrezia eta prekariataren sakontzeak milaka pertsonen bizi proiektuak baldintzatu eta zeharkatzen dituelako. Urgentzia materialen borroka hori politizatzea dagokigun bezala, borroka hori bera ematea, hau da, lan eta bizi baldintza materialen borroka egitea ezinbesteko zaigu. Orain arte lantokietan egin bezala, baina praktika eraberrituaz. Baita lantokiez harago ere, kalean zein familia eta lagunarteko harremanetan. Horretarako hartu ditugu azken kongresuan hainbat erabaki; bai ekinbideari begirakoak zein organizatiboak. Horien artean, orain lehen lerrora ekarri nahi dugun lantegiez gaindiko antolaketa rako eremua izan nahi duen ekintza sozialeko komunitatea.

Soberan inoiz egongo ez dena gihar militantea delako. Lantokietan eguneroko praktikak erakusten digun bezala, antolakuntza kolektiboak emanen digu gure lan eta bizi baldintzak borrokatzeko boterea. Horrela, aktibazio soziala -herri, auzo eta eskualdeetan militantzia kultura areagotzea- lehen mailako eginkizuna izan behar du. Nola egingo diogu aurre egungo testuin-guruari eta datorrenari antolaketa kolektibo eta borrokarako masa sozialik gabe?

Gure auzokideen, lankideen, lagunen... problematiken berri izan eta horriei aurre egiteko tresnak eskaintzea da kontrabotere sindikalismoaren oinarria. Horregatik sindikalismoak interbentziorako zailtasunak izan dituen erremetara zabaltzeko anbizioa, imajinazioa eta gaitasuna biderkatu behar ditugu. Eta horretarako baliagarriak

SINDIKALISMOA ERE MU BERRIETARA ZABALTZEKO ANBIZIOA, IMAJINAZIOA ETA GAITASUNA BIDERKATU BEHAR DITUGU. HORRETARAKO LAN IRAUNKORRA, UMILA, ENPATIKOA ETA KONPROMETITUA EZINBESTEKOAK DIRA



dira masterrak eta ikasketak; baina ez ezinbestekoak Bai, ordea, lan iraunkorra, gertukoa, umila, enpatikoa eta konprometitua.

Ikasturte honetako erronkez aritu behar ginen eraberritutako Talaieren lehen atal honetan. Bada, ikasturteaz baino, datorrenari aurre egiteko gako simple bezain eraginkorrik aipatzea deliberatu dugu. Bide luzea eta zaila dugu aurretik eraldaketa eta burujabetza prozesuetan urratsak eman nahi baldin baditugu. Baina are okerragoa izango da hautu hau egin ezean parez pare izango dugun errealtitatea. Energia krisi betean, inflazioaren hazkunde etengabeen, larrialdi klimatikoak ardaztuta, ikusezin egindako zaintza lanen antolaketa bidegabearen aurrean eta aberastasuna esku gutxitan metatzeko birkonfiguratzan ari den sistemaren krisialdi ziklo berrian, zer eskatu zapaldutako Herri hone-tako langile eta herri sektoreei edota emantzipazio kolektiboa helburu duen sindikatuko kidegoari? Ekintza zuzena gure bizitzen gain. Bizi gogoa, ilusioa, konpromisoa eta elkartasuna. Antolakuntza eta borroka. Pertsonen ongizatean ere eragiten du, Angelek adierazi bezala: «Nire pentsioa 795 eurokoa da, eta diru sarrera horrek egunez egun konpontzea ez da erraza. Beti agertzen dira gastu berriak, eta horrek beti kezkatuta egotea dakar. Psikologikoki kezka iraunkorra da, etengabe pentsatzen egoteak zer eta nola erabiliko dudan, elikadurari loturik hau bai baina bestea ezin dut... derrigorrean konpontzen zara baina ez da erraza». ■

Jule Goikoetxea eta Albert Nogueraren "ESTALLIDOS. REVUELTAS, CLASE, IDENTIDAD Y CAMBIO POLÍTICO" liburuan iraultza, matxinada, klase soziala, identitatea, subjektu historikoa, eta aldaketa politikoa bezalako

kontzeptuak lantzen dira, azken aldiko gertaerek ezkerraren marko kontzeptual guzta nola eraldatu duten aztertuz. Jarraian Irati Sienra eta Ander Bilbao LABeko kideek idatzitako erreseina duzue.

Eztandak

Inongo spoilerrik egin gabe liburu hau gomendatzeko arazoi nagusia "gaur egungo mundu globalizatu eta individualista honetan, nola egin?" galderari bueltaka burua hormaren kontra kolpatzen gaudenontzat erantzun interesgarriak dituela da. Topatzen ditugun korapiloak askatzen ditu? Ez, noski, teoria liburu bat da, eta, beraz, teorizatu egiten du. Baino liburu honek estrategia diseinatzeko, korapiloak askatzen hasteko, bidea egiteko pistak eman eta bideorri bat markatzen lagun dezake.

Eta pasarte batzuetan filosofian murgiltzen bada ere, orokorrean oso modu ulergarrian garamatzate euren hausnarketetan barrena, eguneroko tasuneko paralelismo eta adibideen bidez. Une askotan déjà vu sentsazio bat dugu irakurtzean, liburuak norbere burutazio eta kezkak antolatzen laguntzen digulako.

Beste batzuetan, ordea, orain arte kontziente izan ez garen hainbat kontu argitara atera, eta "klik" desberdinak eragiten dizkigu. Eta norbere pribilegioez ohartzeak azkura eragiten du. Pentsamendu monoteista eta androzentrikotik aldedu eta askoz ere ikuspegi aberatsago eta konplexuago batekin azterzen du eraldaketa. Erronkaren konplexutasuna ezkutatu beharrean korapiloa azalera ekarri eta agerian uzten dute gaur egun iraultza egitea XIX. mendean baino zailagoa dela. Beraz, tamainako atakari heltzeko estrategia eraginkorra identifikatzea da tokatzen zaiguna.

Laburbilduz, gure ustez, mundua eraldatzeko marko teoriko ez berria, baina bai gaurkotua eskaintzen du liburuak, epe luzeko estrategia baten koordenadak finkatu eta eguneroko lana oinarritzeko irizpideak emanda.

Honaino, liburua eskuartean hartzeko interesa piztu dizugula espero dugu. Hala ere, gure bizitzak maiz denborari dagokionez prekarioak dira, eta askok, gogoa izanda ere, ezingo duzue egin. Zuentzako beraz, gure ustez, liburuaren ideia nagusiak biltzen dituen erreseina hau. SPOILERrik nahi ez baduzu, ez jarraitu!

ESTALLIDOS (2019)

Estallidos. Revueltas, clase, identidad y cambio político (2021)


Idazleak:

Jule Goikoetxea Mentxaka eta Albert Noguera

Edizioa:

Bellaterra edicions - Cultura 21

GOMENDIOAK



JULE GOIKOETXEA MENTXAKA (DONOSTIA, 1984)

Filosofia, Kazetaritza eta Zientzia Politikoak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitateetan eta Cambridgen. Filosofian doktorea. Azken urteotan Cambridge eta Queenseko unibertsitateetan egin ditu ikerketak. Gaur egun,

Zientzia Politikoetako irakaslea da EHUn. Nazioarteko hainbat aldizkaritan argitaratu ditu bere artikuluak, eta Euskal Herriko eta Spainiako hedabideekin kolaboratzen du.



1. ERREBOLTA EDO IRAULTZA

Tunez, Egipto, Frantziako Txaleko horriak, Txile, Baltimore, Iran, Iruñeko “La manadaren” auziaren kontrako mobilizazioak. Zergatik ugaritu dira azken hamarkadetan eztanda bezala definitu ahalko genituzkeen fenomenoak? Zerk bihurtzen du eztanda bat iraultza edo errebolta? Galdera horietara hurbilpena egiten du liburuaren lehenengo atal zehatz bezain konplexu honek.

Garai bakoitzak bere iraultzaren ideia propioa garatu behar duela azpimarratzen dute, garaian garaiko baldintzei erreparatuta. Ildo horretatik tiraka ideia interesgarrietan sakontzen du liburuak: egungo iraultzen denboren birpentsatzea, dominazioa forma multidimensionalean egituratua dagoela kontuan hartuko duen estrategia konstanteen garatzea, borroka ezberdinak artikulatzeko gaurdanik eman ahal ditugun pausoak edo XXI. mendean eraginkorrak izango diren barrikadak sortu bai, baina barrikada horien atzean nola bizi

eta harremanduko garen pentsatzearen beharra.

Egun ematen diren eztandek ez dute iraultzaren iruditegi klasikoarekin bat egiten: ez ditu masa homogeneo batek garatzen, alderdi edo antolakunde politiko batek gidatuta, alternatiba politiko konkretu baten baitan. Ekimen espon-taneoak dira, sumindura batek haus-potuta hasten diren leherketak, norabide argirik gabeak. Baino horrek ez die aldaketak eragiteko gaitasuna kentzen: prozesu baten parte dira.

Iraultza vs erreforma paradigma eraldaketa vs erreforma paradigmarenatik aldatzea proposatzen digute. Izan ere, gure jendarte eredua hain dela konplexua, egiturazko eraldaketa ezin dela berehala eta epe-laburrean, matxi-nada bakarrarekin gauzatu. Boterea as-paldi ez dago Neguko Jauregian. Ondo-rioz, nekez irudika dezakegu eraldaketa prozesu sakon bat trantsizio eratziale konplexu bezala ez bada, eta horrek beste erritmo eta gertaeren sekuentzia bat eskatzen du. “Emantzipazioa egun,

eraldaketa (ez erreforma) desberdinen batuketa edo akumulazioaren bidez soilik lor daiteke, jendartea osatzen duten instituzio desberdinetan (familia, lantokiak, eskolak, Estatua, unibertsitatea, komunikabideak, etab.) gauzatuta, bakoitzak eskatzen dituen erritmoen arabera, borrokan ari diren subjektu anitzen artean, eta hori, ezinbestean, denboran zehar soilik gerta daiteke”.

Denboraz gain, iraultza non irudikatzen dugun ideia ere berritu behar dugu: eztandak zein borrokak deszen-tralizatuak dira, eta halakoak izan behar dute descentralizatuak diren menpe-ratze sistemak konfrontatzeko. “Arazoa da sistema horiek behetik descentralizatuta daudela, baina aldi berean goitik oso ondo koordinatuta, monopolioak ikustea besterik ez dago horretaz ja-betzeko. Hori da oraindik eztandek eta borrokek ez dutena: descentralizatua baina koordinatua dagoen artikulazio eraginkorra”.

Mugimendu antolatuetatik ohikoa izan da eztanda horiei mesfidantzaz be-

ALBERT NOGUERA FERNÁNDEZ (BARTZELONA, 1978)



Zuzenbide konstituzionaleko irakaslea da Valentziako Unibertsitatean.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko legalari eta politologoa, Habanako Unibertsitateko Zuzenbidean doktorea da. Bolivia eta Ekuadorko Batzar Konstituziogileetan aholkularia izan zen.

giratzea. Inoiz antolatu ez den jendeak parte hartzen duelako, erroko aldaketa eskatzen duten mezuak ez dituztela... edo besterik gabe, euren atzean hariak mugitzen nor dagoen eta zein interesen arabera ez dakigu-lako. Bat-batean indarra har-tzen duen elementu batekin (dela argindarren faktura, demokrazia falta, feminizazioak edo aldaketa klimatikoa) identi-fikatuta altxatzen diren subjek-tu anitzek (edo ez hain anitzek) gauzatzen dute eztanda. Ident-i-tate bat gailendu daiteke edo ez, mugimendu bat sortu edo ez, erroko aldaketa edo hain errokoa ez den legedi aldaketa bat ekar dezake... edo arreta mediatico handia dakinaren mobilizazio hu-tsean geratu eta desegin.

Gakoa, beraz, eztandek duten transformazio gaitasunean aurki-tzen dugu. Noguerak aipatzen du "iraultza bat definitzen duena era-daketa politiko eta sozialaren erradikal-tasuna" dela. Zentzu horretan, eztanda bat iraultza izan daiteke, utziko dituen ondorioen arabera. Baino ondorioak izan ditzan, garapen bat izan behar du, eta horretan asmatzea dago gakoa. Bo-rronen, eztanden, koordinazioan.

Beste mende batzuetan ezkerra as-ka-pen proiektu komun bat eskaintzeko gai izan den bezala, "funtsezko da gaur egun ere jendeari etorkizun bat irudi-katzeko proiektu bat ematea, eta horre-tarako, ze helburu lehenesten ditugun adostu behar dugu". Erraza da esaten.

Zorionez, galdu ditugun aukerei, iristeko daudenek hartuko diete le-kukoa. Eztanden ugaritzea ulertzeko bi gako nagusi ematen dizkigute. Alde batetik, sortu zenetik ahula eta inper-fektua den demokrazia liberalaren krisia. Azken hamarkadan, haistik, Es-tatuek boterea galdu dute korporazio handien mesedetan eta demokrazia

liberala ez da gai jendartearen beha-rrak asetzeko.

2. EZTANDEN SUBJEKTUA

Bigarren atal honetan ere, hiru gal-derra ezberdinek hartzen dute erdi-gunea. Nork eramaten ditu aurrera eztandak? Langile klasearen identi-tatearen inguruan eraikita ez dagoen subjektu ez artikulatu batek amaitu dezake kapitalismoarekin? Eta, au-rretik aipatutako dominazio mul-tidimentsionalean sakontzen lagun-duko digun azken galdera, zer da klase soziala?

Ezkerraren ikuspegi klasikoan, iraultzak aurretik eraikitako subjektu antolatu batek gidatuko lituzke. Antolakuntza eta praxi militantearen ondorioz sortzen da eztanda. Azken gertaerek erakutsi digute kontrako noranzkoan bidea egiterik badago-ela: eztandak sortu dira lehenengo eta hortik abiatuta subjektu berriak sortu dira. Badirudi harremana egon badagoela eztandetan parte hartzen duten kideen heterogeneitatearen eta subjektuak eratzeko aipatutako mo-duaren artean.

Ildo honi jarraituz, badugu sindikal-gintzara ekartzeko Noguerak garatzen duen hausnarketa interesgarri bat: ezkerraren partidu/sindikatu eskema klasikoa gizon zuri mono urdindun, heterosexual eta adindunaren neurri-eraiki bada, ez dio erantzuten errealtateari. Ez behintzat guztiari. Azpimarra jartzen du honek ez duela esan nahi eztandetan edo hauetatik sortutako subjektu berriean ez dagoela modurik batasuna edo pertenentzia sentimen-durik sortzeko. Honek esan nahi du mugimendu sozialen ardura dela, sindikatuena ere bai, behin eztandak ger-tatuta eragileen antolakuntza jakintza guztsia mugimenduaren mesedetan jartzea eta mugimenduari potentzial eraldatzailea txertatzea.

**SINDIKATUAN EGIN
DUGU JADA
LANA VS KAPITALA
KONTRADIKZIOTIK
BIZITZA VS KAPITALERA
IGAROTZEKO BIDEA,
EDO HORRETAN
GAUDE
BEHINTZAT**

Bigarren eta hirugarren galderak hankaz gora jartzen dituzte bi autoreek. Goikoetxeak ala dio klase sozialen inguruan: "Klase sozialak esplotazio eta dominazioak definitzen ditu. Kontuan hartzen badugu ez dagoela esplotazio eta dominazio bakarra, klase sozial ezberdinak daude: genero sexuatuaren funtzioa klase sozialak eraikitza da, arraza kategoriaren funtzioa bezala,

kategoria politikoa dena, ez biologikoa, sexua bezala. Beraz, ez dugu onartuko klase kontzeptua esplotazio mota bakarrari aplikatzea". Sindikatuak egin dugu jada lana VS kapitala kontradikzio biziak VS kapitalera igarotzeko bidea, edo horretan gaude behintzat.

3. ALDAKETA POLITIKOA GAUR

Bukatzeko, mundua irauli nahi dugun guztiontzako bereziki aberasgarriak suertatu zaizkigun bi ideia hauek azpimarratu nahiko genituzke: boterea eta estatuaren eraldaketa gaitasun baldintzatua.



Boterea harreman bat bezala ulertzera eramatzen gaitu Goikoetxeak, gobernua, armada eta korporazio handien kontrola eskuratzea baino askoz harago doana. Ikuspegi honetatik abiatuta autoreak galdeztzen digu ea prest egongo ginatekeen gure burua armatzeko, entrenatzeko, antolatzeko, diziplinatzeko. Gure egitura kognitibo eta emozionala aldatzeko. Azken finean, egun gehiengoon lehentasunak diren lana eta familia iraultzaren mesedetan bigarren plano batean uzteko.

Noguerak aipatzen digu ezkerak hauteskundeak irabazteak ez duela zertan ekarri ezkerrak estatua kontrolatzea. Burgesiak egun ezagutzen dugun estatua bere neurria sortu zuen boterea, behar izatekotan, parlamentutik bestelako instituzioetara mugitzeko (tribunalak, armada). Hala ere, bai uste du estatua politika eraldatzaileak martxan jartzeko tresna izan daitekeela: esfera materialean instituzionalitateak sortu behar ditu estatuak eta honetarako herri borroken eta autoantolakuntza kolektibo ereduen beharra azpimarratzen du, honek emango baitio aukera eta indarra ezkerrari estatuko aparatuak zapalduon mesedetan jartzeko. ■

Aldizkariaren atal berri honetan Programa soziekonomikoaren esparru ezberdinetan sakontzen joango gara, Talaiaaren ale bakoitzean programan jasotzen den neurri zehatz bat hizpide hartuta. Lehenengo honetan Bidezko trantsizio batzordeak izango ditugu mintzagai.

Programa sozioekonomikoa

aletuz

PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOA

Pandemia betean, LAB sindikatuak bere programa sozioekonomikoa berritzeko ariketari ekin zion. Testuin-gurua zaila zen oso, baina garrantzi-tsutsuzat jo genuen irekitzen ari zen ziklo ekonomiko, politiko eta sindikal berriari indarrez heldu eta ipar orratza ego-kitzeko gogoeta egitea. Gerora etorri-takoek beharrizana areagotu eta gure erabakia zuzena zela berretsi besterik ez dute egin.

Ez da nolanahiko ariketa izan. Militantziarekin batera egindako saioak, eztabaидatu, idatzi, ekarpenak jaso, berriz eztabaидatu eta berriz idatzi. Horrela joan gara proposamena ehotzen, ariketa kolektibo etengabeen. Ez gara, gainera, sindikatuko afiliazioarekin egotera mugatu, beste hainbat ekarpen eta eztabaida ere izan ditugu borrokan dauden eta bidelagun ditugun hamaika eragile eta militanteekin.

LABen programa sozioekonomikoa beraz, euskal langileriari eskaini nahi diogun bideorria da; gure ekinbide propioa zehazteaz gain, beste sektore sozial, politiko eta sindikalekin eztabaидatu eta aliantzak eraikitzeko tresna. Ez da maximoen ez eta minimoen progra-

ma. Modu dialektikoan garatuz doan proposamen integral gisa ezaugarritu nahi izan dugu; etengabeko berrikuspen eta garapenean egongo dena.

Modu honetan, sindikatuaren ondare historikoan oinarritu eta lau iturri ideo-logikotatik edaten du batez ere gure programak. Bizi dugun larrialdi ekologikoak hala eraginda eta azken Biltzar Nagusien norabidean sakonduz, ekosozialismoa da hartzen duen ardatz nagusietako bat. Esplotazioan oinarritutako sistema bidegabe hau planetaren muga biofisi-koekin talkan dagoelako eta edozein alternatiba posible, erreal eta desiragarrik aldagai hori bere muinean kokatu behar duela sinetsita gaudelako.

Aldi berean, ia hiru hamarkada luze daramatzagu sindikatuan feminismoan bidea urratuz eta nola ez, feminismoaren emariak ere elikatzen du gure proposamena. Ekonomia feministaren ekarpenetatik, zor patriarkalaren aitortzatik eta berau iraultzeko proposamenen saiakeratik eraiki nahi dugu gure proiektu politikoa.

Demokratizazioa eta nazio garapena dira presente dauden beste bi oinarri

nagusiak. Demokraziarik ez da goelako merkatu askearen logikari aurre egin eta ekonomiaren gaineko kontrolik gabe, langile eta herri sektoreok gure buruak gobernatzeko dugun eskubidea eta boterea eraiki gabe. Eta nazio garapenaren ardatza ezinbesteko zaigulako euskal langileok bizi ditugun dominazio forma guztiei erantzun, gure lurradean errorturiko eredu sortu eta gure hizkuntza, kultura eta kosmobisioak etorkizuna izan dezaten bermatzeko.

Zapalkuntzen elkar gurutzatzeak gorputz eta lurraldetan forma zehatzak hartzen dituzte. Dominazio forma bat bestearen gainean modu zurrunean metatu baino, elikatu eta forma berriak hezurmamitzen dira; Euskal estatua da gure ustez, aipatu oinarri ideologikoetan aurrera egiteko ziklo politiko honetan beharrezkoa dugun tresna. Burujabetza material eta politikoan sakontzeko, Euskal Herriko langile eta herri sektoreon bizitza duinak bermatzeko indar korrelazio berriak garatu eta kontsolidatzeko eta kapitalari muga jarrita agertoki berriak sortzeko behar dugu estatu propioaren geltokia. Are gehiago egungo testuinguru geopolitikoari so egiten badiogu.

LABen estrategia soziosindikalak beraz, prozesu independentista eraldatzalea bultzatu, elikatu eta gorpuzteam datza, klase interesak prozesuaren erdigunean kokatuz eta prozesuak klase interesei erantzun diezaion borrokatzu.

BIDEZKO TRANTSIZORAKO BATZORDEAK. EREDU BAT AURRERA EGITEKO

Asmoak asmo, eguneroko borroketan asmatu, bizi baldintzak duindu, egiturazko krisiei aterabidea emateko proposamenak ekoitzu eta langile jendea aktibatuz eta borrokara batuz egingo dugu bidean aurrera.

“ LABEN PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOA EZ DA MAXIMOEN EZ ETA MINIMOEN PROGRAMA. MODU DIALEKTIKOAN GARATUZ DOAN PROPOSAMEN INTEGRAL GISA EZAUGARRITU NAHI IZAN DUGU; ETENGABEKO BERRIKUSPEN ETA GARAPENEAN EGONGO DENA ”

Berehalako borrokak, hitzarmene-tako soldata igoerak, klausula feministak, azpikontratazioa mugatzeko neurriak, lan osasuna bermatzeko akordioak, soldata eta pentsioen arrakalaren aurkako ahaleginak edota gobernu desberdinaren aurrekontu politikak baldintzatzeko mobilizazioak erroko aldaketa politiko eta soziala elikatzeko balio behar dute. Orain eta hemen lantokietan eta kalean sindikatuak egiten dituen borroka guzti horiek, langileriaren lan eta bizi baldintzak duintzeko borrokak izateaz gain, aldaketa politiko orokorrerako baldintzak sortzeko batailak dira.

Horregatik zaizkigu ezinbestekoak bata eta bestea- borroka material inmediatoak eta armas luze-ko eraldaketa prozesuak- lotuko dituen hari praktiko eta diskursiboa elikatzea. Langile asanbladak egitean borroka ideologikoa egiteko, infoak, negoziaketak, okupazioak, piketeak eta manifik egitean alternatiba egon badagoela eta posible dela aldarrikatzeko. Alternatiba posible egiteko.

Programa sozioekonomikoa erre-minta kutxa bat da norabide horretan. Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua edukiz bete eta eraldaketen sakontzeko neurriak jasotzen ditugu bertain. Talaiaren hurrengo zenbakietan programaren gakoak ale-tuz joango bagara ere, energia krisiari eta larrialdi ekologikoari aurre egiteko jasotzen dugun proposamenetako bat-ean egingo dugu oraingoan azpimarra: Bidezko Trantsizorako Batzordeak.

Batzorde horien proposamenaren funtsa, trantsizioa gauzatzeko behar den planifikazioa aldarrikatu eta bertain langileon protagonismoa lehen lerroan jartzea da. Eraldaketa egun dagoeneko gertatzen ari delako eta muinean beraz berau nork gidatzen duen, eta noren interesak lehenesten diren dagoelako.

Gauza jakina da Patronalak, kapitalaren interesen araberako eraldaketa egin nahiko dituela. Energia krisia eta zuriketa berdearen mantraren atzean, eskulana merketzeko eta pobretzeko neurriak ezarri eta ekoizpen moduetan errentagarritasun ekonomikoa lehenetsiko dira, bigarren mailakoa izanik sozialki eta ekologikoki gehiengoaren mesedetara egingo den trantsizio justuaren helburua.

LABen sinetsita gaude egungo kontsumo, produkzio eta banaketa eredua eraldatu behar dela, material eta energia eskasiaren aroa irekitzen ari dela eta planetaren bioanitzasuna zaindu eta muga biofisikoekin bat datorren garapen eredua behar dugula. Krisi ekologiko orokorra bizi dugu eta hurrengo hamarkadan hartzen diren erabakiak determinanteak izango dira. Guztiok ardura bera ez dugula badakigu, langileok ez baikara eredu honekin aberastu eta planeta suntsitu dugunak, baina gure egiten dugu eredu honek sortutako kalteak zein eredu aldaketa gauzatzeko erantzukizuna. Ezin dugu kapitalaren interesak defendatzen dituztenen esku utzi trantsizioaren lidergoa.

Bidezko Trantsiziorako Batzordeak, langileon parte hartze eta esku hartze zuzena bermatzeko aukera gisa proposatzen ditugu. Jarduera ekonomiko batzuk eraldatu, murriztu, ordeztu edo desagerrarazi behar badira, lehentasunez sektore horietako langileekin planifikatu eta adostu beharko delako. Agerikoa da ezin garela enpleguaren defentsa hutsera mugatu, jarduera batzuk duten inpaktu ekologikoa kontuan izan gabe. Baino, aldi berean, ez dugu onartuko langileon lan eta bizi baldintzak ziurtatuko ez dituen eraldaketa prozesurik. Sozial-

**“BIDEZKO
TRANTSIZIORAKO
BATZORDEAK,
BEHARREZKO
TRANTSIZIO
EKOSOZIALEAN
LANGILEON PARTE
HARTZE ETA ESKU
HARTZE ZUZENA
BERMATZEKO AUKERA
GISA PROPOSATZEN
DITUGU”**

ki, politikoki eta sindikalki areagotuko den eztabaidea honetan, lehentasunez langileon uneko eta etorkizuneko bizi baldintzen defentsa kokatzea da gure eginkizuna.

Enpresa bakar batean hainbat neurri hartu daitezke, baina ziurra da sektoreen inguruko erabakiak haritu behar direla. Horregatik, Bidezko Trantsizioaren aldeko Batzordeen egitasmoa bultzatzeko lehen urrats gisa, sindikatuan Euskal Herriko ehun sozio-produktiboaren egoeraren argazkia egin, lehentasunak ezarri eta afiliazioarekin zein bertako langile-riarekin proposamenak partekatzea izango da. Aterabideak, bideragarritasun proposamenak, eraldaketaren oinarriekin bat egiten duten plan teknikoak... eztabaidatu eta adostu beharko ditugu.

Modu berean, sektoreetan Bidezko Trantsizio Batzordeak eratzeko borroka egitearekin batera, eskualde mailakoak gara daitezen proposatu beharko dugu. Ezin delako lurralde antolaketa, zerbitzu publikoen diseinu eta trantsiziorako bideorriork planifikatu bertan lan egiten duten langileen iritzi eta beharrak jaso gabe.

Batzordeok finean, langileok gure etorkizunaren jabe izan gaitezen borrokatzeko aukerak irekitzen dituzte. Goitik inposatu nahi diguten enplegu suntsiketa, prekarizazio eta kapitalismo berdearen aurrean lanaldi murrizketa, enplegu baldintza duinak, eta zer, nola eta zertarako ekoiztu behar dugun eztabaidea eta bideorrian gure protagonismoa defendatzeko. Gure indar guziekin, egoerari aurre hartu eta gure ekintza soziosindikal erantzun parametroetan baino, bizitza bizigarrien aldeko ofentsiban kokatzea dagokigu. Larrialdi ekologiko eta sozial betean egonik, beranduegi da pesimistak iza-teko. Ekin diezaion!



Txostena

Bizitzaren garestitzea Hego Euskal Herrian: energiaren afera. LAB

<https://www.lab.eus> | [labureus/T14G1](https://lab.eus/T14G1)



Podcasta

Berria egunkariaren klima eta natura krisiari buruzko 'Kinka' podcasta

<https://www.berria.eus> | [labureus/T14G2](https://lab.eus/T14G2)



Artikulua

No tenemos derecho al colapsismo. Una conversación con Jorge Riechmann (I) – Emilio Santiago Muiño

<https://www.contraldiluvio.es> | [labureus/T14G3](https://lab.eus/T14G3)



Bideoa

«Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundea beste biderik bada?» jardunaldia.

<https://www.youtube.com> | [labureus/T14G4](https://lab.eus/T14G4)




“Demasiado tarde para ser pesimistas”

Daniel Tanuro

Gehiago nahi?

Eduki gehiago www.iparhegoa.eus webgunean

Aldizkariak
eta eduki osagarriak



<https://labur.eus/talaiaaldizkariak>

Bideoak



Talaiaren erreprodukzio-zerrenda
Ipar Hegoaren youtube kanalean

<https://labur.eus/talaiaabideoak>

Podcastak

The screenshot shows a list of podcasts on the iparhegoa website. It includes three main categories with sub-links:
- ETXEBIZITZA: 'I. Etxebizitza aleko mugimendua Ipar Euskal Herrian'
- MIGRANTES: 'II. Migranteen erakundeak eta hirigintza'
- DIGITALIZAZIOA: 'III. Migracioen estropaeek eta teknologien pribatizazioak'
Each category has a link to 'Talaja 13' (Etxebizitza), 'Talaja 12' (Digitalizazioa), 'Talaja 11' (Mugimendua), and 'Talaja 10' (Pribatizazioak).
Below these are three more links:
- Talaia 12 Digitalizazioa | Algoritmoei aurrean langile mugimendua Ipar Euskal Herrian
- Talaia 12 zentzualdeekin lotutako lehen podcasta
- Talaia 12 zentzualdeekin lotutako bigarren podcasta

<https://labur.eus/talaiaodcastak>



BATU KOMUNITATERA!

EKINTZA SOZIALEKO
KOMUNITATEA
ABIATU

